

GURE  
ETXEA,  
GURE  
KOBA

 **Bizkaia**  
*santimamiñe*

## ANIMATUKO AL ZARA?

¡Kaixo, kobazale!

Kobazuloak gure arbasoen babesleku izan ziren. Hauetan, kanpoko arriskuetatik babestuta sentitzen ziren harrizko hormen artean. Gaur egun, ordea, gure etxean sartuta babesten gara; eta horregatik, Santimamiñetik, 5 eta 12 urte bitartean badituzu, proposamen bat egin nahi dizugu etxean lasai-lasai ondokoa eginteko.


Zeuk ere labar margoak egin ditzazun nahi dugu. Eredu modura, alboko orrialdean fitxa bat daukazu, bisonte bat pausoz-pauso marrazteko aholkuekin. Teknika menperatzen duzunean, nahi duzun animalia marrazten saia zaitezke; izan ere, bisonteen irudiak ezezik, Santimamiñen zaldien, hartzen eta ahuntzen irudiak ere badaude, besteak beste.

Zure marrazkiak hobe deritzozun euskarrian egin ditzakezu: folio batean zein kartulina zati batean, esate baterako. Nahi izanez gero, dokumentu honen azken orrian harrizko horma baten itxura duen espazio bat gorde dizugu zure labar artea bertan egin dezazun.


Irudia bukatzean, [santimamine@bizkaia.eus](mailto:santimamine@bizkaia.eus) helbide elektronikora bidali, gaian ondokoa jarrita: Gure etxea, gure kobazuloa. Mezuan zure izena eta adina jarri.

Zuen kobazuloetan gordetzen dituzuen altxor artistikoak ezagutarazi nahi ditugu!


# NOLA MARRAZTU DEZAKET BISONTE BAT?



**HIRU BOROBIL EGIN ITZAZU, ERDIKOA BESTE  
BIAK BAINO HANDIAGOA DELA**



**GEHITU HANKAK, BUZTANA ETA ADAR BAT.  
GORPUTZAREN ETA BURUAREN FORMA ITXI**



**SAKONTASUNA EMATEKO, ATZEKO ALDEAN  
DAUDEN HANKAK ETA ADARRA GEHI ITZAZU**



**AZKENIK, BOLUMENA, ITZALA ETA TESTURA  
EMANGO DIZKIOGU GURE BISONTEARI**

ORAIN ZURE TXANDA DA!

Web: [www.bizkaikoa.bizkaia.eus/santimamiñe](http://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/santimamiñe) · e-mail: [santimamine@bizkaia.eus](mailto:santimamine@bizkaia.eus)  
Facebook: [facebook.com/santimaminekoba](https://facebook.com/santimaminekoba)  
Instagram: [instagram.com/Santimamine\\_koba](https://instagram.com/Santimamine_koba)

#GureEtxeaGureKoba #MiCasaMiCueva #Santimamiñe #NiEtxeanGeratukoNaiz #QuédateEnCasa

 **Bizkaia**  
santimamiñe